



PP

Talde Politikoa Grupo Político
PPIjentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Lurraldebusen galtokiari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Ematen du orain Gipuzkoa plazan gelditzen diren Lurraldebusen ibilgailuak Foruen pasealekuan geldituko direla laster. Foruen pasealekuko lorategiak eta ingurua aldatzeko asmoa du Udalak, Lurraldebusen ibilgailuentzat eta bidaiarientzat lekua moldatzeko han.

Gobernu Taldeak Gipuzkoa plaza oinezkoentzat bihurtu nahi du, eta, horretarako, Lurraldebusen super-geraleku bat sortzea planteatu du, lorategi-ingurune batean, Donostiako zabalguneko berdegune bakanetako batean.

Hori dela eta, hau da gure



KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio argitaratzeko Lurraldebusen geralekuak Gipuzkoa plazatik Foruen pasealekura aldatzeko proiektua, epeak eta aurrekontua.
2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio aztertzeko Pio XII.ean zen autobus-geltokia Lurraldebusen ahalik eta ibilbiderik gehien azkeneko geralekua izateko biderik den, Dbusen lineak indartu eta geltoki haren eta erdigunearen arteko lotura azkarra izatea bermatuta.

Donostian, 2025eko maiatzaren 21ean

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea